

Zikoina anila

Pfizer

Gaixotasun arraro batekin elkarbizitzen duen haur baten ametsa

Roberto Ferrero Gómez

Ilustrazioak: Adolfo Ruiz Mendes

+6



WEEBLEBOOKS



www.pfizer.es

Testua: Roberto Ferrero Gómez

Ilustrazioak: Adolfo Ruiz Mendes / Cósmica®



www.weeblebooks.com

info@weeblebooks.com

Testu zuzentzailea: Dolores Sanmartín

Madril, 2018ko Urtarrila

**Haur berezi, ezberdin eta
paregabe horien familia
guztiei eskainita.**

Zer da normala? Zeri deitzen diogu arraroa? Ezberdina dena, paregabea eta berezia izan daiteke? Galdera horiei erantzuna bilatzera garamatza “Anil koloreko zikoina” ipuinak, bestearen azalean jartzearen eta ezberdintasunak duen balioari buruzko ipuina, alegia. Vehia eta Nailaren istorioaren bidez, zeinek gaixotasun arraro bat daukan, bakoitzaren barruan ditugun “zikoina anilak” zaintzearen eta estimatzearen garrantzia ulertzen dugu.

Pfizer-en osasunaren hezkuntzaren aldeko apustua egiten dugu eta hurrei zein nagusiei errespetua, berdintasuna eta enpatia bezalako baloreak azaltzeko tresna didaktiko hoberenatarikoa delakoan ipuin hau eskaintzen dugu.

Ipuin honek, ume, guraso eta familiei hausnarketa, dibertsio eta ikasketa momentu bat eskaintzea espero dut. Eta, gure filosofia eta era ezberdinean izateko arrazoia hurbiltzen jarraitzean konfiantza dut, baina beti helburu berarekin: guztion artean, mundu geroz eta osasuntsuago bat eta osasunarekin konprometituago den bat lortzea.

Mónica Piñuela

Pfizer-reko Komunikazio Burua



Zikoina anila

Gaixotasun arraro batekin elkarbizitzen duen haur baten ametsa

Roberto Ferrero Gómez


Ilustrazioak: Adolfo Ruiz Mendes / Cósmica®





Kaixo, Vehia deitzen naiz eta nire familiari buruz zerbait kontatuko dizuet.

Astelehenero bezala, amak berriro ere goiz alde egin du nire ahizpa txikiak medikuarekin kontsulta duelako, eta ostean, bere ariketak egitera joan behar da, indartsuago eta zuzen ibiltzetik hurbilago egoten laguntzen dioten ariketak egitera, hain zuzen ere.





Beranduago, aho eta mingainarekin mugimenduak praktikatu behar ditu, mediku ezberdin batekin egiten duela uste dut, hitz egiten duenean ez diogulako ulertzen...,

**gutxi hitz egiten duen arren,
oso xelebrea da!**

Igeri egitera doaz beste egun batzuetan, baita eskola berezi batera ere, non amak, Nailak jolasten duen bitartean, beste pertsona batzuekin hitz egiten duen. Horregatik, nire 15 urteko neba nagusiak, Danel, askotan eskolara eramaten nau.



Eta, zergatik da horrelako berezia nire ahizparen bizitza?

Behin, Naila txikia zenean -orain 2 urte ditu eta nagusia da, ni bezala, jada 6 ditudala-, Danel eta bioi Nailak zerbait berezia zuela azaldu ziguten gurasoek, eta horregatik gehiago kostatzen zitzaiola eskailerak igotzea, bakarrik jatea, bere adineko haurrek bezala hitz egitea...etab.

Gaixotasun arraro bat du, dirudienez. Eta duena sendatzeko ez dago pilula, pomada ezta txertorik ere! Bere gaixotasunari buruz inork ez daki ezer asko, baina, behintzat, ez du minik. Naila hain ezberdina ez izateko xarabe edo pilularen bat aurkitzeko, medikuren batek jende argi eta jakitunarekin hitz egitea behin da berriz saiatuko zirela esan zuten aitak eta amak.





Nire azken errebisioan betaurrekoak ipini zizkidaten ez nituelako arbeleko marrazkiak eta letrak ondo ikusten. Nik, eramatea, oso gustuko dut, arrosak dira, xarmantak, guztion artean aukeratu genituen eta ederra nago haiekin. Betaurrekoak zergatik eraman behar nituen eta nire neba-arrebek ez galdetu nuen eta aitak

pertsona guztiak ezberdinak direla azaldu zidan, eta horrek egiten du bakoitza berezi.

Danel nebak ere badu zerbait ezberdina dena, bere haginak zuzentzeko aparatua darama. Pertsona bakoitzari gauza ezberdinak gertatzen zaizkigu. Uste dut hasieran nebaz ere barre egiten zutela eskolan, zelako inozoak!, ez dakite ez dela ezer txarra. Uste dut hobeto ulertzen dudala,

bakoitzari gauza bat egokitzen zaigu: niri betaurrekoak, nebari hortzetako aparatua, Nailari arraroa den zerbait edukitzea...



Egun haietan, amak eta aitak arduratuago eta goibelago ziruditen, telefonoz asko hitz egiten zuten, bileretara joaten ziren...

Aitak bere lana utzi behar izan zuen Naila bere lan berria zela esan zuelako.

Eta, noski, gu ere!

Ados egon zen ama, bera erizaina izanez, txandak gora eta behera, gurekin egoteko erraztasun handiagoa duelako.

Nik ez daukat ideia handirik honi buruz,,,

Pilo gustuko dut Naila eta Danelekin jolastea, zirikatu egiten gaitu eta gu izutzeko ezkutatu egiten da. Bere etxeko lanak egiten ari ez denean, noski.




Eskolan sartzean, nire ikaskideei nire ahizpa zeinen berezia zen kontatu nien. Ordutik, denek maitasunez tratatzen naute eta gauza polit-politak esaten dizkidate hari buruz. Denek Fernandok izan ezik. Maltzurra da Fernando, eta berataz barre egiten du: "Ahate bat da zure ahizpa!". Esaten didanean, ez dut batere gustuko, eta horregatik, ez ikusiarena egiten dut.




Amari Naila zergatik zen ezberdina

eta nirekin eskolara zergatik ez zettorren
galdetu nionean, hurrengo azaldu zidan:

- Aditu laztana, familietara heltzen
diren haurtxo berriak zikoina
batek ekarritakoak dira.



A stylized illustration of a white stork with a long beak, perched on a nest of straw on the peak of a red-tiled church roof. The church has arched windows and doorways. In the background, there is a small village with white houses and red roofs under a warm, orange sky with a single white cloud.

Bai! Badakit nolakoak diren zikoinak!

Animalien liburuan erakutsi zizkidan aitak, hainbeste so egiten dugun liburu horretan, eta gainera, bidai luzea egiten genuen herri horretara joaten ginenean ikusi ditugu, gogoan duzu, ama? Non bizi ziren ikusi genuen: kabi izugarri handian, elizaren gainean, ondo oroitzen naiz haietaz.

- Bai..., arrazoi duzu, Vehia..., zuri-beltzak, zango luze eta moko handiarekin.

**-Ba, Naila ekarri zuen
zikoina anil kolorekoa zen;**

besteengandik hain ezberdina, hain berezia, hain ederra,
guztien artean hain apartekoa, hura bezain ezberdina zen
izakitxo bat utzi zigula: berezia, ederra eta apartekoa.

- Albaitaria izan nahi dut nik eta kolore horretako
zikoinak ikertu!- esan nion amari.



Elkarrizketa horren ostean, anil koloreko zikoina ikusteko jakin-mina sentitu zuen Vehiak.

Gauzak galdetu behar zizkion, eta Naila bezain ezberdina eta arraroa izatearen arrazoia jakin nahi zuen.

Ez zen denbora asko igaro animalien liburua kuxkuxeatu zuen arte, eta zikoinak non bilatzen ziren Daneli galdetzen gutxi tardatu zuen.



- Eguraldi ona heltzeraino itxaron behar duzu; neguko hotza igarotzera beste kontinente batera joaten dira zikoinak, hori dela eta, egun hauetako batean hemendik hegan egiten pasa daitezke-erantzun zuen nebak.

Vehiak ez zuen amore ematen zikoina anila ikusteko desirarekin, eta leihotik begira orduak eta orduak ematen zituen, pasatzekotan ikusi zitekeen lekutik, beste hegazti asko zebiltzan handik hegaka eta.



Vehiak mota guztietako animaliak maite zituen, eta nekatu gabe egon zitekeen denbora luzez haiei begira. Pazientziari, analizatzeko denbora hartzeari eta ekiteari dagokionez, Nailaren antza zuen, bakarrik egiten saiatzen zen gauzetan saiatua eta konstantea zena, sardeska era egokian hartzea bezala, liburu bat zabaltzea, zerbait eskatzerakoan ulertzeko moduan esatea.

Kasualitatez, hebreeran Naila izenak «bere helmugak lortzen dituen»esan nahi du.





**Zein arraro!,- deiadar
egiten zuen Vehiak
maiz-. Zikoinen
argazki batean erez
ez da zikoina anila
agertzen.**

Eta bere leihoko kokalekura bueltatzen
zen, karabela zelatari bat balitz bezala.

Oso ume bizkorra zen eskolan, eta oso nota onak ateratzen zituen, irakasle zein ikaskideen aldetik oso maitatua, Nailari buruz etengabe galdetzen ziotenak. Baina noski, hor zegoen Fernando, salbuespena izateko; bere portaera txarragatik zigortzen zuten egun batzuetan ere.

Vehia bere logelatik etxerako lanak egiten ari zen Danelen bila atera zen arrapaladan:



"Neba, neba!, ikusi dut! Nire leihotik pasatu da, gelditu da eta begiratu egin nau.

**Ederra zen!, hain
ezberdina zen
kolorekoa, eta hain
ikusgarria, ezin niola
begiratzeari utzi,
berezia eta apartekoa,
amak kontatu zidan
bezala...,**

**Naila bezain berezi
eta apartekoa!"**



Nebak geldiarazi zuen.

- Ikusi egin duzu?


- Nor?

- Zikoina anila!

Samurtasun osoz,
masailean musukatzen
zuen bitartean, Danelek
erantzun zion: - Vehia, nik
nahiko nukeen bezalako
lo-kuluxka egin duzu!
Eguzkipean lokartu zara
leihoan zeundela, zure
kuxin gainean jarrita,

**eta zikoina
anila eztizko
amets batean
bisitan etorri zaizu.**

- Ezta pentsatu ere! Egiazkoa zen! Beste
haurtxo berezi bat utzi behar zuelako iragaitzaz
zegoela esan dit zikoinak.



- Era berean, apartekoa
izan arren, **beste**
zikoinen
kolorekoa
izatea
gustatuko
litzaiokela
esan dit,
behatua
eta
bakarrik
sentitzen
delako.



Kolore horretaz nork margotu zuen aurkitu behar dut, anil kolorekoa noiz bihurtu zen, beste zikoinen kolorekoa izan daitekeen edota kolore horretako zikoina gehiago dauden eta non dauden. Zergatik agertzen dira deitu ez ditugunean?

Gurasoek Nailarekin egiten duten berdina egingo dut, arrastoak bilatu, bideak, lagun guztiei existitzen dela erakutsi, eta, inoiz ikusi ez dituzten arren, nonbaiten daude, eta, edozein momentutan, Naila bezalako haurtxo berezi eta aparteko batekin haien etxeetara ailegatu daitezkeela.

Momentu horretan bere aita ailegatu zen, sukaldean afaria egiten ari zena.

- Aita, ikertzea gustatuko litzaidake. Egin ahalko dut? Zer behar dut?



Aita erantzuteko prest zegoenean, amak eta Nailak atea ireki zuten eta etxera sartu ziren, ariketa, zaintza eta jolas terapeutikoen beste egun gogor baten ostean.

Vehia aitari egindako galderaz ahaztu zen eta haiengana arrapaladan hurbildu zen:

- Kaixoooo! Gauza aaaasko kontatu behar dizkizuet!





Bat-batean, bakarrik ez zeudela konturatu zen. Fernandok laguntzen zituen, eskolako kide gorrotagarriak.


**Vehia ikaragarri
sumindu
zen: nolatan
zeterren bere
ahizpa eta
amarekin?**

Baina, erantzuteko denbora izan baino lehen, amak esan zion:

- Vehia, Fernandok zurekin hitz egin nahi du.

- Vehia...nik... sasoi honetan hain
astakirtena izateagatik barkamena
eskatu nahi dizut... nik... -eta negar-
zotinka hasi zen.

**Fernandok, zure
ahizpak duen
gaixotasuna duen
anaitxo bat izan du
eta...**



Zure etxera zihoan zikoina anila!

- esan zuen Vehiak bere amari bukatzen utzi gabe, eta Fernando besarkatu zuen-. Ez zaitez kezkatu, nik ahal dudan guztiarekin lagunduko zaitut, asko dakit. Umea Vehiaren adeitasunaz harritu zen eta irribarre egin zuen.

Ama, anil koloreko
zikoina gehiago
aurkitu behar ditugu!



Bere ama pentsakor geratu zen. Vehiak ideia izugarri ona izan zuen nahigabe: Haur bereziak zituzten familia gehiago aurkitzea!, eta harrotasunez begiratu zuen bere alaba.

Bitartean, ahizpari esan zion Vehiak:

- Zatoz Naila, anil kolorea gustuko duzu? Kolore berezi horretako zikoina bat ezagutu dut, zikoina arraroa da, baina apartekoa, zu bezala.

**Zuk anil
kolorekoa
izan nahi
duzu???**





-amaiera-

LLLLLLLLLLLL

Sekula ez gaude gaixotasun baten albisteari aurre egiteko prest, eta gutxiago ere ezohiko gaixotasun bati buruz ari bagara, non, diagnostikora heldu baino lehen zalantzaz betetako bidea luzea den. Gaixotasuna seme-alaba batek pairatzen badu, sentimendu, zalantza eta emozio guztiak bikoiztu egiten dira, eta ondorioz, familia bateko egunerokotasuna kudeatzea oso zaila bihurtzen da.

Ezohiko gaixotasunen inguruan dagoen ezjakintasunak ez die bakarrik pairatzen dituenei eta haien familiei eragiten, ez; ezjakintasun hori medikuen artean eta gizartean arrunta da, eta ondorioz, egunero sortzen zaizkigun zalantza txikiak zein arazo handiak jasateko, edota hauei irtenbideak bilatzeko tresnak aurkitzea, oso zaila bihurtzen da. Orduan da zerua iluntzen denean eta adorerik eza familietara ailegatzen denean, bakardadearen atsekabeak besarkatzen gaituenean eta gure buruari denaren zergatia galdetzen diogunean.

Momentu horretan, magia balitz bezala, guk jasan dugunaren berdina jasan duten pertsonak agertzen dira, edo momentu horretan jasaten ari direnak eta bidean laguntzen gaituztenak,

orduan da gaixoen elkarteak sortzen direnean, eta laguntza behar duten familiak babesten dituzte. Bizipen eta egoera antzekoak dituzten pertsonak biltzen dituzte elkarteek, non dena konpartitzen den, non eskuzabaltasun osoz jendeak elkar laguntzen duen, non inoiz aurkituko ez genukeen informazioa eskuragarri dagoen eta non inork ematen ez dizkigun baliabideak aurkitzen ditugun.

“Zikoina anila” ipuinak, gauzei aurreiritzi gabe eta naturaltasunez aurre egitearen garrantziari buruz arreta deitzeko zikoina jo nahi du, garrantzitsuena ez da gertatzen zaiguna, nola aurre egiten diogun baizik.

Mario Torbado

Gaixo elkarteekin harremanak izateko burua. Pfizer

Argitaratutako beste Liburuak

- Mi primer viaje al Sistema Solar
- Viaje a las estrellas
- La guerra de Troya
- El descubrimiento de América
- Amundsen, el explorador polar
- Atlas infantil de Europa
- Las malas pulgas
- El reto
- Descubriendo a Mozart
- ¡Sácame los colores!
- La Historia y sus historias
- Descubriendo a Dalí
- Cocina a conciencia
- Descubriendo a Van Gogh
- Apolo 11, objetivo la Luna
- El Lazarillo de Tormes
- Descubriendo a Mondrian
- Mi primer libro de historia
- OVNI
- La tortilla de patatas
- Carlos V
- El sueño mágico de Shamán

**Gure liburuekin dibertigarria, alaiak eta
denon eskura dagoen hezkuntza sortu nahi dugu.
Lortzen lagunduko gaituzu?**

<http://editorialweeble.com/colabora-con-nuestro-proyecto/>



www.weeblebooks.com



www.pfizer.es